



KRISTAU-PRESTAKUNTZARAKO MATERIALAK **2024**

PLANETA ALDATZEKO GAI
DEN ESPEZIE BAKARRA

GIZAKI-EFEKTUA

Katekista eta
hezitzaileentzako
gidaliburua

Migratzaile klimatikoak



Katekesia:

- Haurrak
- Nerabeak
- Gazteak
- Helduak

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

Borondatezko Barauaren Eguna
2024ko otsailaren 9a, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2024ko otsailaren 11, igandea

MANOS UNIDAS: ZER DA ETA ZER EGITEN DU?

Manos Unidas Espainiako Eliza Katolikoaren baitako elkarte bat da, munduko herrialderik behartsuenei aurrera egiten eta garatzen laguntzen diena, Jesukristoren irakaspenei jarraituz: «Gose nintzen eta jaten eman zenidaten; egarri nintzen eta edaten ematen zenidaten». Manos Unidasek 1959an antolatua zuen Gosearen Aurkako lehen Kanpaina. Horrez gain, garapenerako gobernu kanpoko erakunde bat da, boluntarioz osatua, katolikoa eta sekularra.

Bere eginkizuna pobreziaren, gosearen eta gaixotasunen aurka borrokatzea da, eta horiek eragiten dituzten zergatiak desagerrarazteko ahalegina egitea.

Horretarako, garapenerako hezkuntza sustatzen du: hitzaldiak ematen ditu, ikastaroak antolatzen, kanpainak prestatzen... Era berean, garapenerako proiektuak bultzatzen ditu, tokiko bazkideekin batera komunitateei laguntzeko.



ZEINTZUK DIRA BERE ASMOAK?

- ❖ Kristau-elkartea sentsibilizatzea, bizitza, esperientzia eta ondasunak behartsuekin **parteka** ditzan, eta beharra dutenei janariaren, Jainkoaren eta kulturaren aldetik duten gosea asetzen laguntzea. Horrela, denok elkarrekin, bete egingo dugu Jainkoaren nahia: **guztiok bizimodu duina izatea**.
- ❖ Katekistei eta hezitzaileei baliabideak eskaintzea **gosea eragiten duen desberdinkeria**ren aurka **jarduteko**, gizakiok bekatu-egiturak betierekotzen daukagun erantzukizunaz jabetzeko eta egitura horiek aldatzeko. Horrela, gizaki guztiok berdin egiten gaituen **«duintasun-printzipioa»** bete ahal izango dugu eta gizakiak pobreziaren tiraniatik askatu ahal izango ditugu. Era berean, **«denon etxea» eraiki ahal izango dugu**, jasangarria eta **pobreziarik, goserik eta desberdinkeriarik gabea**. Soiltasunaren bidez, **ingurumena berronertzen lagundu behar dugu**, gizakion kontsumismo itsuari mugak ipiniz.

«Jainkoarenak dira lurra eta lurrean den guztia» (Sal. 24, 1). Lurra Jainkoak eman digun opari bat da, gizaki guztiok duintasunez bizi ahal izateko behar duten guztia jaso dezaten bertatik».

«Sistema honek, etekinak lortzearen, edozer hondatzen du; besteak beste, ingurumena. Eta ingurumena, hain hauskorra izanik, babesik gabe geratzen ari da erabateko nagusitza duen merkatuaren interesen aurrean». (Frantzisko aita santua, Evangelii Gaudium 56)

«Gero eta migratzaile gehiago ari dira ingurumen-narriadurak eragindako miseriatik ihes egiten, eta kezagarria da hori. Nazioarteko konbentzioek ez diete migratzaile horiei errefuxiatu-baldintza aitortzen, eta babesik gabe geratzen dira, abandonatuta». (Laudato Si' 25) (LS)

Kristau-prestakuntzarako material gehiago, hemen: manosunidas.org/sensibilización-parroquias

DESBERDINKERIA KLIMATIKOAREN AURREAN, JUSTIZIA KLIMATIKOA

Kreazioak marru egiten du erditze-minez, Kreatzailearekin bat eginik bere osotasuna bilatzen duen bitartean.

«Benetan handia da “zor ekologikoa”; batez ere, Iparraldeak Hegoaldearekiko duena». (Frantzisko aita santua)

Manos Unidasen, duintasuna bultzatzeko asmoz, «gizakiak pobrezia, gosearen eta desberdinkeria atzaparretatik askatzearen alde» aritzen gara. 2024an, **pobreziarik, goserik eta desberdinkeriarik gabeko planeta jasagarria** lortzeko helburua finkatu dugu, «lotura estua dagoelako planetaren hauskortasunaren eta behartsuen artean» (LS16).

Bereziki injustizia klimatiko jarri nahi dugu agerian: injustizia horrek klima-aldaketan du jatorria, eta neurriak hartzea eskatzen digu, kaltetutako milioika pertsonak duintasunez bizitzeko aukera izan dezaten.

«Erditze-minez marru egiten duen» (LS 2) mundu honetan ahaztuen dauden behartsuentzat, bereizezinak dira natura zaintzea eta behartsuekiko justizia egitea, giza duintasunak lotura estua duelako ingurumen osasungarri batean bizitzeko eskubidearekin eta lurra ematen dizkigun baliabideak ekitatez erabili ahal izatearekin.

«Badirudi gizakia batzuetan ez dela konturatzen ingurune naturalak duen garrantziaz, eta berehalako irabaziari eta kontsumoari bakarrik begiratzen diela. Jaunaren borondatea, ordea, gizakia naturaren “jabe” eta “zaintzaile” adimentsu eta zintzoa izatea zen, eta ez “esplotatzaile” eta “hondatzailea”». (Joan Paulo II.a, Redemptor hominis).

Ingurumen-arazo asko giza jarduerak eragin ditu. Kontsumismo neurrigabeak eta gauzak erabili eta botatzearen kulturak hondatu egiten dute planeta, eta krisia pizten dute gizartean. Munduan gaur egun nagusi den sistemak espekulazioari eta errenta finantzarioari ematen die lehentasuna, giza duintasunari eta guztion onari beharrez.

Planeta jasaten ari den kaltea herrialde garatuetako jarduera ekonomikoarekin lotuta dago batez ere, baina inpaktuak eta ondorioak Hegoaldeko herrialde ahulak ari dira pairatzen, nahiz eta arazoa ez duten haiek sortu. Ingurumena egoera onean egotea funtsezkoa da haien bizimodurako.

● «Denek ez dugu berdin kutsatzen»

✓ Biztanle aberatsenen % 10ak munduan ekoizten den energia guztiaren % 39 inguru kontsumitzen du, eta emisio globalen ia % 48 isurtzen. Bitartean, % 10 behartsuena energia guztiaren % 2arekin konformatzen da, eta emisio globalen % 12 isurtzen du.

● «Klima-aldaketak ez digu guztioi berdin eragiten»

✓ Herrialde batzuek baliabide ugari dauzkate klimak eragindako ezbeharrei aurre egiteko, baina munduko biztanleriaren erdia inguru klima-aldaketarekiko oso kalteberak diren inguruetan bizi da.

Eta ondorioak begi-bistakoak dira:

- ✓ Desberdinkeria klimatiko eta gosea.
- ✓ Urak kutsatzea.
- ✓ Itsasoaren maila igotzea.
- ✓ Migrazio klimatikoak areagotzea.

Pixkanaka, «**segregazio klimatikoaren**» egoerantz goaz. Egoera horretan, *«aberatsenek dirua daukate beroa, gosea eta gatazkak atzean uzteko, eta, bien bitartean, sufritzen uzten dituzte munduko gainerako biztanleak».*

«Kultura ekologikoa (...) begirada desberdin bat izan beharko litzateke, pentsamendu bat, politika bat, programa hezigarri bat, bizimodu bat eta espiritualitate bat, paradigma teknokratikoa izaten ari den aurrerapenari aurre egiteko». (LS 111).



HAURREN KATEKESIA

AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)



INDIA

Nandini Indian bizi da. Bere eskualdean ez zeukaten elektriziterik, ez etxeetan, ez ikastetxean. Manos Unidasen laguntzari esker, eguzki-panelak ipini dituzte elektrizitatea izateko, eta teknologia berriak erabiliz ikasketak egin ahal izan ditu.

733 milioi pertsona elektriziterik gabe bizi dira; hau da, Espainiako biztanleria halako 15.



KONGO

Etienne Kongon bizi den haur bat da. Duela gutxira arte, koltan-meatze batean aritu da lanean, bere osasuna eta bere bizia arriskuan jarriz. Manos Unidasen lankidetzari esker, eskolara itzuli da, eta haurtzaroaz gozaten ari da.

40.000 neska-mutil koltana, kobaltoa eta kobrea erazteko meatzetan aritzen dira lanean; hau da, futbol-zelaietan jokatzeko duten 22 jokalaria baino ia 2.000 aldiz gehiago.



HONDURAS

Marineli Hondurasko herritxo batean jaio zen. Bere herrian ezin zuten iturriko ura edan, jantzien fabrika baten isurien ondorioz ura kutsatuta zegoelako. Manos Unidasek lagundu egin zien hango herritarrei, fabrikaren hondakinak arazteko sistema bat jartzeko, eta iturriko ura berriz ere edateko ona izateko.

Komuneko bonba botatzen dugun bakoitzean gastatzen dugun ur-kopuru berbera dauka Marineliren familiak egun osoan garbitzeko, edateko eta sukaldean aritzeko.

● Pentsatu: giza aztarna

- ▲ Nola erabiltzen duzu elektrizitatea etxean?
- ▲ Telefono mugikorrik ba al daukazu? Zertarako erabiltzen duzu?

- ▲ Zure ustez, behar baino ur gehiago gastatzen al duzu? Zergatik?
- ▲ Zure kontsumo-ohiturek nolako eragina dute Nandini, Etienne eta Marineliren bizitzan?

INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

● Irakurri

- ▲ «Eta Jainkoak ikusi zuen egin zuen guztia oso ona zela» (Gn 1, 31).
- ▲ «Zeruetako erreinua ziape-alea bezalakoa da (...): **zaintzen bada**, zuhaitz egiten da» (Mt 13, 31).

● Pentsatu

- ▲ Zer opari egin dizkizu Jainkoak?
- ▲ Zure ustez, Jainkoak egin duena zergatik da ona?
- ▲ Nola zaintzen duzu Jainkoak sorturiko mundua?
- ▲ Zerk egiten zaitu zoriontsu?

● Egin

- ▲ Marraztu erosketa-orga bat.
- ▲ Barruan, idatzi jendeak dirua edukiz gero zoriontsuago izateko erosiko lituzkeen 20 gauza.
- ▲ Orain, idatzi orgaren inguruan benetan zoriontsu egiten zaituzten eta diruarekin erosi ezin diren 20 gauza (abenturak, maitasun-keinuak, lagunak...).
- ▲ Zer aukeratuko zenuke: orgaren barrukoa ala kanpokoa?



Alberto Prieto

AUKERA DEZAGUN (Jarduteko)

Pertsona guztiok konturatzen bagara gutxiago kontsumitzeak duen garrantziaz, eta ekintza txiki batzuk egiten baditugu, gizaki guztiontzat hobea izango da mundua.

● Hausnartu

- ▲ Guk zer ekintza txiki egin ditzakegu?
- ▲ Nola kontatuko genieke senideei, lagunei eta ikaskideei?

- **Idatzi** mezu bat gutxiago kontsumitzeak eta ingurumena zaintzeak duen garrantziari buruz, eta gero senideei, lagunei eta abarri erakutsi.



Manos Unidas/Marta Carrero

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

● **Familien topaketa bat antolatu:**

- ▲ Eraman partekatzeko janaria, eta objektu birziklatuekin dekoratu.

● **Ipini mezu hauek dauzkaten hiru kartel:**

- ▲ «Mundua hobeto zaintzeko, gutxiago kontsumitu»
- ▲ «Mundua hobeto zaintzeko, hondakinak birziklatu»
- ▲ «Mundua hobeto zaintzeko, gauzak bota beharrean berrerabili»

● **Aurreko esaldien inguruan hausnartu.**

● **Elkarrekin otoitz egin:**

Handia egiten ari naiz, Jauna, eta horrek poz handia ematen dit.
Lagundu, Jauna, bihotza ere handia izaten.
Egunetik egunera hobea izan dadila.
Zure maitasuna nire baitan egon dadila, nik nire ingurukoei zabaltzeko.
Zaindu dezadala mundua, bai eta sortu duzun natura ere.
Zure antzekoa izan nahi dut, gauzak maitasunez eginez, eta beste pertsonak eta gure mundua zainduz.



NERABEEN KATEKESIA

AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)

● Ikusi bideo hau: Tragedia elektronikoa <https://youtu.be/zdB1QVpCMI0>

- ▲ Zer iruditu zaizu bideoa?
- ▲ Azpimarratu ideia nagusiak.
- ▲ Zergatik dago hainbeste zabor teknologiko? Horrek zer ondorio ditu?
- ▲ Ba al daukazu funtzionatzen ez duen gailurik? Eta funtzionatu arren erabiltzen ez duzunik? Zer egiten duzu halakoekin?


● Hona hemen datu batzuk:

- ▲ 435.000 tona hondakin botatako 4.500 milioi telefono mugikor inguru izaten dira. (Lehengaietan, 9,4 bilioi euroren parekoa).
- ▲ Tresna horien batez besteko bizitza 18 hilabete eta 2 urte artekoa da.
- ▲ Nigerian 100.000 pertsona ari dira zabor elektronikoaren sektorean lanean, eta kutsatu egiten dira gailu horien substantzia toxikoekin.

● Begiratu grafikoari:

Zabor elektronikoa gehien eta gutxien sortzen duten 5 herrialdeak

Per capita kg, 2016



Iturriak: Lewis 2011, The Global E-waste Statistics Partnership, 2018

BBC

- ▲ Zein herrialdek sortzen dute zabor gehien?
- ▲ Zein kontinentetan daude herrialde horiek?
- ▲ Hitz egin errealitate horren inguruan, eta atera ondorioren bat planeta zaintzeko behararen eta pobrezia-artearen artean dagoen harremanaz.

● Espainiak zabor elektronikoaren 960.000 tona metriko baino gehiago

sortu zituen 2020an (Statista).

- ▲ Nora joaten da zabor hori?
- ▲ Zer ondorio eragiten ditu?



INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

«Fededun guztiak elkarturik bizi ziren, eta dena denentzat zeukaten: beren lur eta ondasunak saldu egiten zituzten, eta guztien artean banatzen zuten dirua, bakoitzaren beharren arabera. Egunero, tenpluan bildu ohi ziren, eta haien etxeetan ogia zatitzen zuten, eta otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz egiten zituzten» (Eginak 2, 44-45).

«Jainkoak gizaki eta herri guztien eskura jarri ditu lurra eta lurraren fruituak. Beraz, sortutako ondasunak ekitatez banatu behar dira guztien artean, justiziaren eta karitatearen irizpideei jarraikiz» (Elizaren Dotrina Sozialaren Laburpena, 171).

«Gizakiek Jainkoaren kreazioaren dibertsitate biologikoa hondatzea bekatua da. Gizakiek lurraren integritatea narriatzea eta klima-aldaketa eragitea, lurreko baso naturalak desagerraraziz eta hezeguneak hondatuz, bekatua da. Gizakiek urak, lurra eta airea kutsatzea bekatua da. Zeren naturaren aurkako krimen oro gure kontrako eta Jainkoaren kontrako bekatua baita» (LS 8).

«Kontura gaitezen "gutxiago gehiago dela". Gero eta gehiago kontsumitzeko irrikak itsutu egiten du bihotza, eta ez digu uzten gauza eta une bakoitzaz behar bezala gozatzen. Errealitate bakoitza hemen eta orain bizitzeak, aldiz, errealitate hori txiki-txikia izan arren, askoz ere aukera gehiago zabaltzen dizkigu geure burua ulertzeko eta aurrera egiteko. Kristau espiritualtasunak soiltasunez bizitzea proposatzen digu, gutxirekin gozatzeko gai izan gaitezen. Sinpletasuna aldarrikatuz, gauza txikiak ere baloratzen ikasiko dugu, eta bizitzak eskaintzen dizkigun aukerak eskertzen, daukagun ondasunei atxikita bizi gabe eta ez daukagunagatik atsekabetuta egon gabe. Horrela, alboratu egiten dira menderakuntzaren dinamika eta plazerak metatze soila» (LS 222).

● Taldeak antolatu.

- ▲ Talde bakoitzak testu bat landu dezala.
- ▲ Testu bakoitzeko ideia nagusiak azaldu. Zer da deigarriena?
- ▲ Irakaspenak zehaztu.
- ▲ Lotu mezuak norberaren eta taldearen kontsumoarekin.
- ▲ Zer zerikusi dute testuek denon etxea zaintzearekin?

● Ideiak bateratu eta fededunentzako ondorioak atera.

- **Denen artean**, aztarna elektronikoa murrizteko eta herrialde behartsuetan injustizia klimatikoari aurre egiteko ekintzen dekalogo bat idatzi.

- **Aztertu zure kontsumo-ohiturak.**

- ▲ Osatu beheko koadro hau, dauzkazun gailu elektronikoak kontuan hartuta.

GAILUAK	GUZTIRA	ERABILTZEN DUT	BAZTERTUTA DAUKAT
TABLETA			
MUGIKORRA			
SMARTWATCH			
MUGIKORRA			
KONTSOLA			
AURIKULARRAK			
BESTE BATZUK			

- **Taldean aztertu: Zer aztarna elektroniko uzten duzu?**

- ▲ Zure ustez, asko, gutxi ala nahikoak dira?
 - ▲ Tamainan erabiltzen al dituzu?
 - ▲ Zer egiten duzu gailuekin hondatzen direnean: konpondu, bota, birziklatu...?
 - ▲ Gailu horietatik zenbat dira benetan beharrezko?


- **Gogoratu «AITORTU» atalean ikusitakoa.**

- ▲ Zure ustez, tresna elektrikoek kontsumoak ba al du zerikusirik herrialderik behartsuenetako klima-aldaketarekin? Zergatik?
 - ▲ Zure kontsumoak zer eragiten du zehazki?
 - ▲ Ingurumen-inpaktua arintzeko giltzarrietako batzuk hauek dira: gutxiago kontsumitzea, hondatuta dauden gauzak konpontzea, gauzak berrerabiltzea eta hondakinak ondo birziklatzea.

- **Planteatu** zuetako bakoitzak eta taldeak egin ditzakezen salaketa-ekintzak.

- «**INTERPRETATU**» ataleko **dekalogotik konpromiso** bat aukeratu eta betetzen saiatu.

- **Gaiari** buruz familiarekin hitz egin.





Manos Unidas

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

● Otoitz egiteko elkartu:

- ▲ Aztarna elektronikoa aldatzeko asmoak azaldu.
- ▲ Konpromiso pertsonalak aurkeztu.
- ▲ Elkarrekin, otoitz egin:

Jauna, beharbada ez daukat gauza askorik,
baina bertute asko dauzkat eta besteekin parteka ditzaket.

Erakutsi egoista ez izaten, aurrena besteengan pentsatzen,
eta nire poza zabaltzen. Erakutsi daukadana partekatzen.

Ez nadila neurekoia izan eta eskain dezadala daukadana,
denek izan dezaten jaso dudana gozatzeko aukera.

Askok daukat emateko, eta nire ondasun eta talentuak
biderkatu egin daitezke besteekin partekatzen badituzte.

Jesus, aldatu nire bihotza.

Daukadana parteka dezadala, ematean jaso egiten baitugu,
eta gure bihotzean zaudela ikusten. Amen.

- **Elkarrekin partekatuz ospatu,**
lehenengo kristauak egiten
zuten bezala.

- **Elkarrekin, abestu eta dantzatu**
Emanuel Etchegaray-ren
Himno a la casa común abestiarekin
<https://youtu.be/kPXm5jyROs0>



Manos Unidas/Pompeyo Sancho



GAZTEEN KATEKESIA

AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)

- **Ikusi bideo hau:** Frantzisko aita santuak denon etxea zaintzeko beharrari buruz zabalduko mezua: <https://youtu.be/Yw0tTAOQyRw>

KLIMA-ALDAKETARI DAGOKIONEZ, BA AL ZENEKIEN...?:

- Gure garapen-ereduaren oinarrian dagoen kontsumismo zoroa klima-aldaketa eta injustizia klimatikoa ari da eragiten.
- Urtetik urtera, gero eta miseria, ezbehar eta heriotza gehiago eragiten ari da mundu osoan, baina batez ere herrialderik kalteberenetan.
- Batik bat munduko herrialderik behartsuenei egiten die kalte, nahiz eta klima-aldaketa ez duten haiek eragin. Ikusi estekan datorren informazioa: <https://bit.ly/zonas-mas-afectadas>



Manos Unidas/Concha Sáez

HONA HEMEN DATU BATZUK:

- ▲ Kenyaren iparraldean, Afrikan, emakumeek egunero 10-15 kilometro egin behar izaten dituzte oinez ura lortzeko, eta 20 litro inguru eramane behar izaten dituzte.
- ▲ Munduko biztanleriaren % 10 aberatsenak munduan ekoizten den energiaren % 39 inguru kontsumitzen du.
- ▲ Munduko biztanleriaren % 10 behartsuenak energia guztiaren % 2 erabiltzen du.
- ▲ Munduko biztanleriaren % 1 aberatsenak % 50 behartsuenak baino berotegi-efektuko gas gehiago isurtzen ditu.
- ▲ 733 milioi pertsona inguru elektrizitaterik gabe bizi dira. Horietatik 568 milioi pertsona Afrikan bizi dira.
- **Adierazi zer iruditzen zaizun atal honetatik deigarriena, eta mezuetako batzuk nabarmendu.**



Manos Unidas

INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

1.- Sentitu eta sentitu:

bihotzarekin bakarrik ikusten da ondo.

● Zer hausnarketa eginarazten dizute esaldi hauek?

- ▲ «Gizakiaren behar guztiak asetzeko adina eskaintzen digu planetak, baina ez gizakiak irrikatzen duen guztia asetzeko» (M. Gandhi).
- ▲ «Gizakiek erabaki bat hartu behar dute: edo kooperatu edo hil» (Antonio Guterres).
- ▲ «Krisi ekologikoak gizakiaren existentzia bera jar dezake arriskuan» (Frantzisko aita santua).
- ▲ Kontsumismoak irentsi egiten du; kalte egiten die planetari eta pertsoneri, eta ondorio larriak ditu kalteberenentzat.

● Nola eragiten diete Kreazioari eta pertsoneri?

2.- Fededunen begirada

IRAKURRI TESTU HAUEK:

«Zeuen elkarte-otorduetarako biltzen zaretenean, egiten duzuen ez da Jaunaren afaria, nor bere afaria jaten hasten baita; horrela, bata goseak gelditzen den bitartean, bestea mozkortu egiten da. Ez ote dituzue zeuen etxeak jateko eta edateko? Ala gutxietsi egin nahi duzue Jainkoaren eliz-elkartea, eta lotsarazi ezer ez dutenak? Zer esan diezazueket? Zorionak eman? Gai honetan ezin dizuet zorionik eman» (1 Kor 11, 20 – 22).

«Ingurumena salbatzea ingurumena txikitzen ari diren enpresen negoziarik biribilena izaten ari da» (Eduardo Galeano).

«Benetan handia da "zor ekologikoa"; batez ere, Iparraldeak Hegoaldearekiko duena. (...) Herrialde aberats batzuen gehiegizko kontsumoak kalteak eragiten dizkie munduko herrialderik behartsuenei, batez ere Afrikan, non tenperaturaren igoera eta lehorteak egundoko hondamendiak ari baitira eragiten» (LS 51).

«Munduan kanpo-desertuak ugaritzen ari dira gero eta barne-desertu gehiago daudelako. Krisi ekologikoak gure barrualdea eraldatzeko deia egiten digu. Baina aitortu behar dugu kristau konprometitu otoizgile batzuek, errealismoaren eta pragmatismoaren aitzakiarekin, gutxietsi egiten dituztela ingurumenarekin lotutako kezak. Beste batzuk pasiboak dira; ez dute beren ohiturak aldatzeko pausoa ematen, eta inkoherente bihurtzen dira. Eraldaketa ekologikoa behar dute; hau da, haien inguruko munduarekin dauzkaten harremanetan, Jesukristoren irakaspenekin bat etorritik jardun behar dute. Jainkoaren sorkuntza babesteko bokazioa izatea gure existentziaren funtsezko alderdi bat da; ez da hautazkoa, ezta kristau-esperientzian bigarren mailakoa ere» (LS 217).

● Pentsatu eta adierazi:

- ▲ Errealitateko zein egoera salatzen dituzte testu horiek?
- ▲ Zein balio azpimarratzen dituzte Denon Etxea zaintzeari dagokionez?
- ▲ Zer diote gure kontsumo-ohiturei buruz?



AUKERA DEZAGUN (Jarduteko)

«Eraldaketa ekologikoa» egin beharra daukagu; hau da, aldatu egin behar dugu Jainkoaren Kreazioarekiko harremana, bai gutako bakoitzak eta bai gizarteak. Jainkoak zaindu egiten du mundua. Zuk nola zaintzen duzu?

- ▲ Zer-nolako energia kontsumitzen dugu? (elikaduran, higieanean, arropan, garraioan...).
- ▲ Pentsatu eta adierazi zer ekintza egin ditzakegun justizia klimatikoa bultzatzeko.
- ▲ Gutako bakoitzak
- ▲ Gizarteak

● Osatzeko

- ▲ Ekimenak
<https://bit.ly/acciones-concretas>
- ▲ Bideoforuma
<https://bit.ly/videoforum-12h>

● Eraldaketa: Nola aska gaitzke kontsumismoaren esklabotzatik?

- ▲ Formulatu konpromiso bat

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

● Aurkeztu konpromisoak

● Elkarrekin errezatu:

O, Jainko Jauna, Kreazioaren egile!
Zure maitasuna unibertso osoan zabaldu da
eta edertasunez bete du.
Lagundu hori guztia ondo zaintzen,
zure seme-alaba guztiok goza dezagun bertako ondasunez.

● Jainkoa goretsi: https://youtu.be/_JqTnJREwaM






HELDUEN KATEKESIA

AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)



● Ikusi bideo hau: Denon etxea nola zaindu <https://youtu.be/JKaqo9hRVIA>

▲ Adierazi gizakirik kalteberenei eragiten dieten ezbeharren zergatiak eta ondorioak zein diren.



ITURRIA: Barne Desplazamenduak Monitorizatze Zentroa (IDMC)

● Hona hemen datu batzuk:

- ▲ Munduko biztanleria aberatsenaren % 10ak ekoizten den energia guztiaren % 39 inguru kontsumitzen du.
- ▲ Biztanleriaren % 10 behartsuenak energia guztiaren % 2 erabiltzen du.
- ▲ Munduko gizaki aberatsenen % 1ak behartsuenen % 10ak baino 175 aldiz karbono gehiago erabiltzen du.
- ▲ 64 milioi pertsona inguruk beste herrialde batzuetara emigratu behar du fenomeno klimatikoaren ondorioz.
- ▲ Hondamendiengatik desplazatuak 2019an. (Ikusi grafikoa).

● Hausnartu:

- ▲ Zer iruditzen zaizu datuek erakusten duten errealitatea?
- ▲ Zure eguneroko bizitzako zer ekintzak dute eragina klima-aldaketan?

INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

Klima-aldaketa eragiten duen, planeta kaltetzen duen, eta pobrezia, gosea eta desberdinkeria areagotzen duen faktoreetako bat neurrigabeko kontsumoa da.

«Kontu garrantzitsuez hausnartzean, nola ez pentsatu uririk, elikagaririk eta etxerik gabe bizi diren milioika pertsonengan, bereziki emakume eta haurrengan? Gosea eskandalagarria da, gero eta larriagoa, eta hori onartezina da, kontuan izanik egoera hori gainditzeko ondasunak, ezagutzak eta baliabideak ditugula mundu honetan. Aldatu egin behar ditugu gure bizimoduak, eta ezabatu egin behar ditugu munduko ekonomiaren disfuntzioa eragiten duten egiturazko zergatiak. Gainera, zuzendu egin behar ditugu hazkunde-ereduak, ezgauzak baitirudite ingurumena errespetatzeko eta gaurko eta batez ere etorkizunerako giza garapen integrala bermatzeko»

(Benedikto XVI.a, Kidego diplomatikoari zuzendutako hitzaldia, 2007)



Manos Unidas

«Gero eta migratzaile gehiago dabilta ingurumenaren narriadurak eragindako miseriatik ihesean. (...) Tamalez, axolagabekeria handia dago munduko hainbat lekutan gertatzen ari diren horrelako tragedien aurrean. Gure senideak pairatzen ari diren drama horiek ikusita ez erreakzionatzeak erakusten du galtzen ari garela gure arbasoek zuten erantzukizun-sena, gizarte zibil oren oinarria» (LS 25).

«Ireki zure ahoa munduaren alde, abandonatuta dauden guztien alde; ireki zure ahoa, epaitu justiziaz, eta defendatu zorigaitzokoak eta pobreak» (Prob 31, 8-9)

«Merkatuak mekanismo kontsumista konpulsiboak bultzatzeko joera du, bere produktuak saltzeko. Eta, horren ondorioz, pertsonak alferrikako erosketak eta gastuak egiten amaitzen dute» (LS 203).



«Garbi izan behar dugu klima-aldaketaren aurrean askotariko erantzukizunak daudela, (...) eta arreta berezia jarri behar diegu behartsuen, ahulen eta kalteberen beharrei, askotan boteretsuenen interesak gailentzen baitira. Gogoan izan behar dugu gizaki guztiok familia bakar bat osatzen dugula. Gure artean ez dago bereizten gaituen muga edo hesi politiko nahiz sozialik; horregatik, axolagabekeriak ezin du gure artean globalizatu» (LS 52).

● Pentsatu eta partekatu:

- ▲ Zer lotura dago planetaren hauskortasunaren eta pobreziaren artean?
- ▲ Errealitatearen aurrean, nola jarduteko eskatzen dizute Jainkoaren Hitzak eta Elizaren irakaspenek?
- ▲ Zer esango zenuke zure eguneroko ekintzei eta ohiturei buruz?

AUKERA DEZAGUN (Jarduteko)

Inpaktu klimatikoak gehien kaltetzen dituenekin justiziaz jokatzeko konpromisoak Kreazioan daukagun fedean du jatorria. Kristauon iritzian, «Jaunarena da lurra eta bertan dagoena» (Sal 24,1). Lurra Jainkoak egin digun opari bat da, gizaki guztiek duintasunez bizitzeko behar duten guztia eskura dezaten bertatik.

● Azter ditzagun gure ohiturak:

- ▲ Behar duzuna kontsumitzen duzu, ala saltzen dizutena? Zer irizpideri jarraitzen diozu erosketak egitean?
- ▲ Informaziorik biltzen al duzu kontsumitzen duzunaren inguruan? (Nola fabrikatuta dagoen, zein baliabide erabili dituzten...)

● Xalotasunaren alde egin, eta kontsumo arduratsurantz jo.

- ▲ Zein jokabide eta ohitura aldatu beharko zenituzke Kreazioa zaintzeko eta gure senide kalteberenei laguntzeko? (Norberak, erkidegoak eta gizarteak)
- ▲ Zehaztu zure bizitzan zein ohitura aldatu edo hartu beharko zenukeen.

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

- Antolatu otoitz egiteko ospakizun bat.
- **INTERPRETA DEZAGUN** ataleko testuetako bat erabili otoitz egiteko.
- Aurkeztu Jainkoaren gaiak eragiten dizkizuen hausnarketak.
- Denen artean, *Gure Aita* errezatu (senidetasunaren otoitza).
- Abestia entzun:
<https://youtu.be/IBW15T++OvqVE>
- Elkartu denak bazkari, askari edo afari xalo baten inguruan.



Manos Unidas/Carmen Carrados

GIDALIBURU HONETAKO GAIETAN SAKONTZEKO

- [Conecta tu estilo de vida con la pobreza \(enlazateporlajusticia.org\)](http://enlazateporlajusticia.org)
- Migratzaile klimatikoak. <https://bit.ly/41oGqQA>
- Laudato Si', denon etxea nola zaindu. <https://acortar.link/BaDT1c>
- Frantzisko aita santuak planeta zaintzeko emandako 10 aholkuak. <https://youtu.be/ensZY7touvc>
- Zaindu dezagun Denon Etxea, Frantzisko aita santua. <https://youtu.be/GNZ3WrYZ6B4>
- «Jasangarria al da gure kontsumoa?» https://youtu.be/N35G-n_41uY

DENON ETXEA ZAINTEKO BEHARRAREN ETA JUSTIZIA KLIMATIKOAREN INGURUAN KONTZIENTZIATZEKO KLIPMETRAJEAK

- Kontsumismoa. <https://bit.ly/42BNquv>
- 2036. <https://bit.ly/3nCGGhI> Berandu ari al gara erreakzionatzen?
- Ohitura txarrak. <https://bit.ly/41jNC0g>
- Iraungitze-data. <https://bit.ly/3pdJvWk>
- Ura aurrezteko ekintza. <https://youtu.be/kbapRUTjj64>
- Lurrak zerbait erakutsi nahi ditu. <https://youtu.be/0-CaqvYZAs>

Manos  Unidas

900 811 888 - manosunidas.org